

## **Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak 85.000 ikusle baino gehiago bildu ditu aurten antolatutako ekimenetan**

***Urtean zehar egin diren 14 ekimen desberdinetara 38.500 ikusle hurbildu dira; 46.500 pertsonak streamingez jarraitu dituzte antolatutako ekitaldiak.***

***Aurtengo berritasunen artean Generoa eta Zientziaren Komunikazioa jardunaldia eta Zientzia Kaiera blogeko artikuluak biltzen dituen Zientziaren Uretan liburua aipatu behar dira.***

**Bilbo, 2023ko abenduak 21.** Bukatzear dagoen urtean UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatutako ekimenek **85.000 partehartzaile baino gehiago** bildu dituzte. Hain zuzen ere, 38.500 pertsona bertaratu dira antolatutako ekimenetara eta 46.500 pertsonak streaming bidez jarraitu dituzte hitzaldi eta jardunaldiak.

Dibulgazio-zientifikoa helburu duen UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak **14 ekimen desberdin antolatu ditu** urtean zehar. Zientzia hizpide duten hitzaldiek, erakusketek, tailerrek edo gai zehatzen inguruko jardunaldiek profil anitzeko publikoa bildu dituzte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiriburuez gain, Kultura Zientifikoko Katedraren jarduna herrietara zabaldu den urtean.

Izan ere, aurten ere eskaintza zabala izan da. Iraila osoan luzatzen den [Bilbo Zientzia Plazaz](#) gain, [Bidebarrieta Zientifikoa](#), [Zientziaren Ertzetik](#) eta [Zuia Zientifikoa](#) hitzaldi zikloak egin dira eta publiko zehatzagoei zuzendutako ekimenek ere harrera ona izan dute. Esaterako, ikasleei zuzendutako *Ciencia Show* bakarrizketa zientifikoaren lehiaketa antolatu da, bertsozaleentzako *Bertsozientzia* saioak egin dira eta hezkuntza edota neurozientzia arloko profesionalentzat, hurrenez hurren, [Hezkuntza-frogak](#) eta [Eboluzioari eta neurozientziari buruzko jardunaldiak](#) antolatu dira.

## **Berritasunen artean, genero-arrakalari aurre egiteko proposamenak**

Aurtengo berritasunen artean lehen aldiz antolatu den *Generoa eta Zientziaren Komunikazioa* jardunaldia aipatu behar da. Otsailean EITBren eta Iberdrolaren laguntzarekin antolatutako jardunaldian zientzia arloan ematen den genero-arrakalaren inguruan hausnartu eta horri aurre egiteko [Zientzia genero ikuspegitik komunikatzeko dekalogo](#) osatu zen.

Horretaz gain, [Zientzia Kaiera](#) blogak hamar urte bete dituen urtean bertan argitaratutako hainbat artikulu *Zientziaren Uretan* liburuan bildu ditu Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak.

## **Ezagutza herritarren esku**

Aipatzekoa da ere urtean zehar hainbat herritan antolatutako erakusketek izan duten harrera. Surfaren oinarri zientifikoak azaltzen dituen *Surfa eta zientzia* erakusketa 10.400 pertsonen ikusi dute eta eguneroko objektuen funtzionamendua azaltzen duen *Zientzia Klean* erakusketak 16.000 bisitari izan ditu.

## Las iniciativas organizadas por la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco han congregado a más de 85.000 personas

*Las distintas actividades organizadas a lo largo del año han tenido 38.500 espectadores de manera presencial y 46.500 por streaming.*

*Entre las novedades de este año cabe destacar la jornada **Género y Comunicación de la Ciencia** y el libro **Zientziaren Uretan**, que recopila varios artículos del blog **Zientzia Kaiera**.*

En Bilbao, a 21 de diciembre de 2023. A lo largo del año que está a punto de finalizar las iniciativas organizadas por la [Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) han congregado a **más de 85.000 personas**. Concretamente, 38.500 han acudido a las distintas charlas o exposiciones de manera presencial y 46.500 las han seguido por streaming.

La **Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU**, cuyo objetivo es promover el conocimiento científico, **ha organizado a lo largo del año 14 iniciativas distintas**. Charlas, exposiciones, talleres o jornadas sobre temas concretos que han creado interés en un amplio espectro de público en un año en el que la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU ha apostado por llevar sus actividades, además de las capitales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, a varios municipios de los tres territorios.

De hecho, durante 2023 la oferta ha vuelto a ser muy amplia. Además de la iniciativa [Bilbo Zientzia Plaza](#) que se realiza durante todo el mes de septiembre, se han vuelto a organizar los ciclos de charlas científicas *Bidebarrieta Científica*, *Zientziaren Ertzetik* y *Zuia Zientifikoa*. Por otra parte, también se ha trabajado para públicos más concretos. Por ejemplo, se ha realizado el concurso de monólogos científicos *Ciencia Show*, ha habido varias sesiones de *Bertsozientzia* para los y las aficionadas a la bertsolaritza y se ha puesto el foco en sectores profesionales como los relacionados con la neurociencia o la educación en jornadas como [Evolución y Neurociencias](#) y [Las Pruebas de la Educación](#).

## Propuestas para atajar la brecha de género en la ciencia

Entre las novedades de este año se encuentra la organización de la jornada *Género y Comunicación de la Ciencia*, un encuentro organizado en febrero junto a EITB e Iberdrola que sirvió para reflexionar en torno a la brecha de género existente en el ámbito científico y elaborar el [Decálogo para una comunicación de la ciencia con perspectiva de género](#) para mitigar esa situación.

Además, este año ha visto la luz el libro *Zientziaren Uretan* que recopila varios artículos del blog de la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco [Zientzia Kaiera](#), que este año cumple diez años.

## El conocimiento científico a pie de calle

Por último, es destacable la acogida que han tenido las exposiciones que han recorrido distintos municipios. Por ejemplo, la exposición *Surf y Ciencia*, que explica desde un punto de vista científico las bases del surf, ha sido vista por 10.400 personas y la muestra *Ciencia en la calle*, que detalla el funcionamiento de objetos que usamos y consumimos a diario, ha recibido la visita de 16.000 personas.